

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainketa aldia jakinarazteko eta kobratzeko iragarkia. 2019ko ekitaldia

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2019ko azaroaren 1etik abenduaren 5era bitarteko egun baliodunetan (egun biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak. B) Betearazte aldia: 2019ko abenduaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratutako ordainagiriak, hiri ondasunen ordainagiriak badira, azaroaren 5ean kobratuko dira, eta azaroaren 12an hiri ondasunen ordainagiriak badira.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonen udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalaren duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Iragarkiaren erreferentzia alfanumerikoa: Bo191007A.

Oion, 2019ko urriaren 18a

Alkatea

EDUARDO TERROBA